299. zk.
Bigarren aroa
Apirilak 15
2017

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Erreportajea
Amaitu da Gaztefolk jaialdia
6-7. orrialdeetan

Kirolak
Santiagotarrak-en denboraldi berria
9. orrialdea

KORRIKA 2017

3- Erreportajea Hartu Hitza Elkartea
4-5- Argazki erreportajea Korrika
8- Kirolak Intsonrisazioa San Martzial tiro eremuan.
11- Haurren Lanak Irungo La Salle HH
12- Gazteen lanak Hirubide DBH
13- Gaztea Eneritz Furyak-i elkarrizketa
14- Gazte infor
15- Agenda

bertako
igogailuak | ascensores
www.bertako.eus

- ✓ Irunen Igogailu Mantenurako Enpresarik aproposena
- ✓ 24 orduko benetako zerbitzua
- ✓ Piezak barne hilean 100 € - tatik
- ✓ Telefono línea barne
- ✓ Euskerazko zerbitzua
- ✓ Eskatu zure aurrekontua 943903450

Argazki lehiaketa

Idoia Bergara
Ume baten marrazki bat klerarekin San Miguel auzoan.

Argazki lehiaketan edonor izan daiteke parte hartzaile. Ez dago adinari edo bizitokiari dagokion mugarik.

Gaia bakarra izango da: Irun. Irungo jendea, lekuak, natura, etab.

Saria: urtearen bukaeran, argitaratu ditugun argazkien egileen artean sari bat zozkatuko dugu.

Bete beharrekoak: argazkiak kalitate ona behar du izan. Argazkiarekin batera, deskribapen txiki bat bidali beharko du egileak.

Argazkiak bidaltzeko: jarozena@irunero.com

Irun atzo Irun gaur

IUA: 43080

Lekuona Misiolaria Kalea

1960ko urriaren 26ko Osoko Bilkuran, Alkatetzaren proposamenez jarri zioten Lekuona Misiolaria izena, Anakako kale honi.

Jose Lekuona Labandibar Irunen jaio zen, Katea auzoko "Elene" baserrian, 1909ko abuztuaren 28an.

Apaiz ikasketak Andoaingo gazte seminarioan egin zituen, eta 1935ean apaiz egin zen. Irungo parrokian lehen meza eman zuen, eta urtebete geroago, Colombiara joan zen. Han, 10 urte eman zituen.

1958ko ekainean Vagadako gotzain eta Kolonbiako San Jorgeko Bikario Apostoliko izendatu zuten.

Irailaren 7an Junkaleko Andra Mariaren parrokiara bisitaldi ofiziala egin zuen, eta hiritar askok harrera ezin hobea egin zion. Hurrengo egunean Irungo Udalak Udaletxeko Areto Nagusian harrera egin, eta korporazioak eskainitako gurutzea eman zion.

Urtebete beranduago, Atzerriko Misioetarako Espainiako San Francisco Javier Institutuko Buruzagi orokor izendatu zuen Vatikanoak.

Iturria: José Monje.

Irungo kaleen izenak.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Unai Oiartzun
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.
Tel: 693 828 099

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org
Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia
Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Hartu Hitza Irun Elkartea sortu dute, 2018an Irunen Herri Galdeketa antolatzeko asmoz

Gure Esku Dago herri ekimenak egindako lanari jarraipena emango dio Irunen

Elkarte egitura hartu du Irunen, Gure Esku Dago dinamikaren baitan sortutako mugimenduak. Hartu Hitza Irun elkartearen izenean emango dituzte orain hurrengo urratsak, helburu ausart batekin: 2018 urtean Herri Galdeketa antolatzea, Euskal Herriaren etorkizun politikoaren inguruan. Talde irekia eta zabala dela azpimarratu dute elkarteko kideek, parte hartzaileen izaera, ideologia edo jatorriari dagokionez.

Erabakitzeko Eskubidearen Aldeko Adierazpena sinatu zuten, iaz, arlo ezberdinetan erreferente diren 300 irundarrek, Gure Esku Dago mugimenduaren ekimenez. “Agiri haren segidatik sortu da Hartu Hitza Irun”, baieztatu du Itziar Gomez batzordekideak. Hurrengo pausoak emateko, Hartu Hitza Irun elkartea eratu dute. Adosgune izendatu dute, taldeko kideen aniztasuna dela eta. Hain zuzen ere, mugimenduaren zilegitasuna ezberdinen arteko akordioan eta ideien eta iritzien errespetuan oinarritzen dela baieztatu du Elena Berazadi Hartu Hitza Irun elkarteko lehendakariak: “Izaera, ideologia, eta jatorri ugariko irundarrek osatzen dute. Talde irekia da, etengabe osatzen ari dena, eta irundar guztientzat zabalik dagoena. Gorpuzten ari da”.

Helburu gisa jarri duten erronka ez da makala. 2018 urtean Herri Galdeketa antolatu nahi dute Irunen, Euskal Herriaren etorkizun politikoaren inguruan. Konbentzituta daudela adierazi du, dena den, Berazadik: “Egin daiteke, eta egingo dugu”. Horretarako, lehen urratsa, haien ilusioa hiritarren artean zabaltzea izango da. “Haiengana iristeko tresna egokiak topatu behar ditugu”, aipatu du Martxel Telletxea lehendakariordeak. Hiriko eragile, elkarte, erakunde eta alderdi politikoekin bilduko dira hurrengo hilabeteetan, eta bilera irekiak ere egingo dituzte. “Erabakitzeko eskubidea irundar guztien elkargune bat izan dadin nahi genuke”, azpimarratu du Telletxeak: “Ideia eta iritzi guztiek lekua edukiko dute”. Ekainerako, hiritarrei zuzendutako agerpen publiko bat egitea aurreikusten dute.

Eztabaida horietan, besteak beste, Herri Galdeketarako galdera adostu beharko dute, ahalik eta jende gehienaren parte hartzearekin. Beste betebehar handia, sinadurak biltzearena izango da. “Badakigu galdeketa ez dela loteslea izango, baina emango ditugun pausoak, ahalik eta zehatzenak eta legalenak izango dira”, nabarmendu du Elena Berazadik: “Gure Esku Dagok Herri Galdeketak egiteko protokolo bat dauka, eta haren arabera, Irunen, 4.000 sinadura biltzea dagokigu”. Galdeketa bera antolatzea etorriko da ondoren. Momentuz ez dute zehaztu 2018ko zein hilabeterako espero daitekeen. “Noiz eta nola ondo pentsatu beharra dago, ahalik eta arrakastatsuen gerta dakigun”, zehaztu du Berazadik. Edonola ere, ziur daude 2018an Herri Galdeketa izango dela Irunen.

Lurra prestatuz
Prozesu parte hartzaile baten ondoren, hautetsontzi bat osatzen duten bi laia hautatu ditu Hartu Hitza Irun elkarteak, logotipo gisa. Pierre Lhande ibilbidean, bidegorriaren ondoan dagoen eskulturan oinarrituta daude bi laiak. 1984an sortu zuen eskultura Gabriel Narzabal artista irundarrak. Alde batetik Hartu Hitza esaldiko bi “h” nagusiak irudikatu ditzakete laiek. Beste esanahi bat ere badutela azaldu du Martxel Telletxeak: “Lurra prestatzeko balio dute, eta gu horretan gabiltza. Herria aktibatzen eta motibatzen, gero hazia botatzeko, hazi horrek fruituak eman ditzan”.

“Talde irekia da, etengabe osatzen ari dena, eta irundar guztientzat zabalik dagoena”

Elena Berazadi, lehendakaria

“Herritarrengana iristeko tresna egokiak topatu behar ditugu”

Martxel Telletxea, lehendakariordea

Euskararen alde korrik

Apirilaren 4an, Irunen izan da euskararen aldeko Korrika. 20.edizioa bete du aurten AEKk antolatzen duen ekimenak, eta Otxandiotik Iruñerako bidea egin du, "Bat-Zuk" leloarekin. Apirilaren 4ko 14:00ak aldera sartu da Irungo lurretan, Oiartzungo Gurutze auzotik. 1.176.kilometroa izan da Irungo lehena, Irungo EKTren eskutik.

Hogeita bat kilometroz aritu da gero Korrika, Irunen barrena. Tartean, Hendaian eta Hondarribian sartu-irtenak egin ditu. 16:00ak aldean, Santiago zubia zeharkatu du Korrikak, eta bertan, erakundeetako eta euskalgintzako ordezkariek eskuz-esku pasa dute lekukoa.

Ehunka ikasle aritu dira Korrika txikian

Bi egun beranduago, apirilaren 6an, Korrika Txikia egin dute hiriko ikastetxeetako haurrek. San Vicente de Paul ikastetxean hasi da, 10:30etan, eta eguerdian bukatu, Zabaltza plazan. Bertan burutu duten ekitaldian, Asier Burgete "Goazen" telesaileko aktore irundarrak aurkezle lanak egin ditu.

ANTXETA
IRRATIA
90.5 / 89.7 FM

BAKAILAOA DASTA EZAZU

RJ BACALAO
bacalaos SANTYMAR
la barajilla bacalaos
Egullor Bacalaos

ka egin dute irundarrek

Amaitu da Gazte Folk jaialdiaren ibilbidea

Hogei urtez etenik gabe jaialdia antolatu ondoren, Gazte Folk bertan behera uztea erabaki du Eraiki Dantza Taldeak. Arrazoi ekonomikoak izan dira nagusi, baina boluntarioak lortzeko azken urteetan izan duten zailtasunak ere eragina izan du. 1997 urtean jarri zuten martxan nazioarteko gazte folklore jaialdia, eta Eraiki Dantza Taldearen jardunaren zutabe handietako bat izan da azken bi hamarkadetan.

2017an festibala arlo ekonomikoan bideragarria izango zen bermerik ez zuen Eraiki Dantza Taldeak. Hori izan da zuzendaritza taldearen erabakiaren arrazoi nagusi. “Erakundeen partetik jasotzen genituen diru partida nagusiak murriztuz ari ziren. Gainera, zailtasun handiak genituen babesle pribatuen inbertsioak lortzeko”, argudiatu du Koldo Ribera Eraikiko zuzendaritza taldeko kideak. Ekonomikoak arrazoien %75 izan direla aitortu du, hala ere, Riberak.

Gainerakoan, jaialdiaren antolakuntzan lagunduko zuten boluntarioen eskasiak eragin du erabakia. “Proiektuak hazkunde bat eskatzen zuen, eta ondorioz, lan karga gero eta handiagoa”, azaldu du Koldo Riberak: “Eraiki taldea garai batekoa baino txikiagoa da gaur egun, eta inguruko jendea erakartzea ere gero eta zailagoa egiten zitzaigun”. Azken urteetan, antolatzaile lanetan zebiltzan boluntarioek ahalegin ikaragarriak egin behar izan dituzte. “Ezin genuen horrelako egoera ez jasangarri bat luzaroan mantendu”, adierazi du Riberak.

> “Ezin genuen horrelako egoera ez jasangarri bat luzaroan mantendu”
>
> **Koldo Ribera**

Urtetan jasotako laguntza eskertu nahi izan die Eraikik kolaboratzaile eta lagun guztiei. “Jaialdia azken hogei urteotan posible egin dutenen lana, esfortzua eta borondatea gogoratu eta goraipatzea besterik ez zaigu geratzen”, baieztatu du Oscar Lucak Gaztefolk-eko presidenteak, komunikabideei bidalitako gutunean. Denbora guzti horretan lortu dituzten esperientzia eta baliabideak aprobetxatu eta baten batek beste jaialdiren bat proposatu nahi baldin badu, haiek laguntzeko prest daudela aipatu du Koldo Riberak. Momentuz, baina, Gaztefolk-ek ez du jarraipenik izango.

> “Jaialdia azken hogei urteotan posible egin dutenen lana, esfortzua eta borondatea gogoratu eta goraipatzea besterik ez zaigu geratzen”
>
> **Oscar Lucas**

Harreman sendoak sortu ditu gazteen artean

Bidearen amaierara helduta, atzera begiratzeko tartea ere hartu dute Eraikiko arduradunek. Gaztefolk-en ekarpenaren balorazio positiboa egin dute. Batetik, Irungo uztaileko programazioan ezinbesteko elementu bilakatzea lortu zuen festibalak. Baina batez ere, parte hartu izan duten gazteen arteko loturak nabarmendu ditu Koldo Riberak: “Kultura aniztasunaren balioa ezagutzeko aukera izan dugu. Gainera, dantza taldetik pasa diren gazteek, beste herrialdeetara bidaiatu ahal izan dute, Gaztefolk-i esker”. Esperientzia ederrak bizi izan dituzte Eraikiko dantzari eta musikariek, baina beste herrialdeetatik etorri diren gazteek ere bai. “Uste dugu Irun hiria jende askoren bihotzetan gelditu dela. Etorri izan direnean oso ondo pasa dute, oso harrera ona jaso dute”, azpimarratu du Koldo Riberak.

Hemendik aurrera, beste proiektuetan jarri beharko du arreta Eraikik. Dantza talde gaztea da gaur egun. 75 partaide dira guztira, bost urtetik gorakoak. Gehienak haurrak diren arren, 16-20 urte artekoen talde txukuna dutela uste du Riberak: “Urteak daramatzate, eta pixkanaka adurak hartzen ari dira. Haiengan egongo da taldearen etorkizuna”. Hiru zatitan banatzen dute ikasturtea Eraikin, hitzordu nagusien arabera: “Santo Tomas, Inauteriak, Amaia Kultur Zentroko saioa, eta sanmartzialetako emanaldia”. Udaran Gipuzkoan zehar saioren bat lotzen saiatuko dira, baina atsedena hartzeko ere baliatu nahi dute. Azken urteotan, festibalak ez baitie tarte handirik utzi.

Folder
Paper-dendarik merkeena
ZIURTATUTA
Kolon ibilbidea, 2
(atzeko aldea)
www.kopiart.net
kopiart@kopiart.net
943 63 93 01

Intsonorizazio lanak egin ditu udalak San Martzial tiro eremuan

Instalazioko jarduerak eragindako soinu inpaktua murrizteko lehen urratsak dira

Aspaldiko eskaera bati erantzun dio Irungo Udalak, San Martzial tiro eremuko kantxa nagusia intsonorizatuz. Soinu neurketak egingo dituzte orain, egindako lanek inpaktua zein neurritan murriztu duten aztertzeko. Emaitzak onak baldin badira, beste bi kantxak intsonorizatzea ere aurreikusten dute.

"Tiro eremuko jarduerak sortutako eragozpenak ahalik eta txikienak izan daitezen lanean jarraituko dugu"

Pedro Alegre, udaleko Kirola arloko ordezkaria

"Finlandiako talde olinpikoa sei urtez etorri da, segidan, San Martzialen entrenatzera"

Juanjo Aranburu, tiratzaile olinpikoa

Behobia eta Bidasoa auzoetako bizilagunen kexak jaso izan ditu Irungo Udalak, aspaldidanik, San Martzial tiro eremuko jarduerak sortutako zarata zela eta. Izan ere, San Martzial Tiro Klubak kudeatzen badu ere, udal instalazioa da eremua. Hego haizea egiten duen egunetan, bereziki, tiroen soinuak eragindako eragozpenak handiak dira Bidasoaren ibarrean. Eremuaren kokapena kontuan hartuta, zaratak ingurumenean izan dezakeen eragina ere agerikoa da. "Denbora generaman formula egokienaren bila. Munduko beste zenbait tiro eremutan hartu izan dituzten neurriak aztertu ditugu", azaldu du Pedro Alegre Irungo Udaleko Kirola arloko ordezkariak.

Kanpotik egurrezko xaflez estali dute kantxa. Barrutik, soinua harrapatzen duten materialak erabili dituzte. Horrela, kantxan bertan geratuko da zarata. "Tiratzaileei ez die kalterik egingo, kaskoak erabiltzen dituztelako", zehaztu du Alegrek. Bizilagunek, aldiz, eskertuko dute. Inpaktuaren murrizketa zenbaterainokoa den, udalak egingo dituen azterketek zehaztuko dute. Beste bi kantxa ditu eremuak, eta horiek ere intsonorizatzea helburu dutela aitortu du Alegrek: "Tiro eremuko jarduerak sortutako eragozpenak ahalik eta txikienak izan daitezen lanean jarraituko dugu".

Goi mailako tiro eremua da

San Martzial Tiro Elkarteak kudeatzen du eremua, eta haren jarduera gero eta handiagoa dela baieztatu du Pedro Alegrek. Udaran maila handiko lehiaketak antolatuko dituela aurreratu du. "Estatuan balorazio onena duten tiro eremuen artean dagoela diote adituek. Nazioartean ere, ondo kokatuta dago", azpimarratu du Alegrek. Eremuaren kalitatearen erakusle izan daiteke, Europa iparraldeko estatuetako selekzioak etorri izan direla entrenatzera, klima eta baldintza egokien bila. "Finlandiako talde olinpikoa sei urtez etorri da, segidan", zehaztu du Juanjo Aranburu tiratzaile olinpiko irundarrak.

Hiru modalitate olinpikoak praktika daitezke San Martzial tiro eremuan: foso olinpikoa, trapp bikoitza eta skeet-a. Astelehenetik ostiralera 12:00etatik 18:00etara dago zabalik. Larunbatetan, igandeetan eta jaiegunetan, berriz, 10:00etatik 18:00etara. Lizentzia duten kirolariek soilik erabil dezakete instalazioa. Hala ere, publikoari irekiak diren jarduerak ere antolatzen dituzte. Apirilaren 30ean, esaterako, Compak Sporting modalitateko lehiaketa antolatu dute. Izena emateko: 943 66 60 16. Informazio gehiago jasotzeko: clubdetirosanmarcial@gmail.com.

Indarrez ekingo dio Santiagotarrak-ek sasoiari

250 kirolari ditu elkarteak gaur egun

Iaz 50.urteurrenak eragindako ur-lasterra baliatu nahi du Santiagotarrak Kirol Elkarteak, indarrez aurrera egiten jarraitzeko. Klubeko kirolariek eta entrenatzaileek hilabeteak daramatzate lanean, baina taldeen aurkezpen ofiziala egin dute martxoaren 27an, Amaia Kultur Zentroko auditorioan, senideen eta lagunen aurrean. 250 kirolari inguru ditu Santiagotarrak-ek, bere hiru sekzioetan: arrauna, pista eta ur-biziak.

Urte bizia izan da 2016.a Santiagotarrak K.E.ko kideentzat eta haien ingurukoentzat. Lanez, emozioz eta pozez betetako urtea izan dela onartu du Nerea Seijo arraunlariak, aurkezpen ekitaldian. 50.urteurrenak arrakasta izan zezan laguntza eskaini duten guztien babesa eskertu du, elkartearen izenean. Azken urratsak eman dituzte urteurrenaren ospakizunek 2017ko martxoan, *Santiagotarrak-50 urte Bidasoan* liburuaren argitalpenarekin.

Atzean gelditu da, alabaina, 2016 urte berezia. Dena den, hurrengoari ere "ilusioz" helduko diotela baieztatu du Olatz Zabala presidenteak: "Orain arte egindako lanari esker, erreferente izatea lortu dugu piraguismoan eta arraunean". Pistako sekzioan arrakasta gehien izan duen palistetako bat ere bada Zabala. Iaz, Sellako Nazioarteko Jaitsieran garaipena lortu zuen, K-2 modalitatean, Aurora Figueras kataluniarrarekin batera.

Aitor Gorrotxategi, Telmo Fernandez eta Tania Prol dira pistan gehien nabarmendu diren beste kirolarietako batzuk. Guztira, 86 partaide ditu sekzioak. Arraunean, 90 neska-mutil ari dira gaur egun, gogor lanean. "Euria edo haizea egin, uretara ateratzen gara, hala eskatzen badigute", baieztatu du Nerea Seijok. Ander Legazkue eta Aitzpea Gonzalez dira azken aldian maila handiena ematen ari diren arraunlariak.

Ur-bizietako sekzioaren eskariak

Emaitza onenak, ur-bizietako sekzioko palistek eman dituzte. 34 neska-mutil dira eskolarteko mailan, eta 44 federatuetan. Ander Elosegi da, gaur egun, Santiagotarrak K.E.ko izarra. 2016an, Joko Olinpikoetan finalista izan zen, hirugarren aldiz, slalom-eko C1 proban. Gainera, brontzezko domina jantzi zuen Europako Txapelketan, Eslovakian. Palistaren ibilbidea goraipatu du Olatz Zabala elkarteko presidenteak: "Lan isilaren, umiltasunaren eta sakrifizioaren bidez lor daitekeenaren adibiderik onena da. Gure klubaren balioak ederki defendatzen ditu".

Elosegiz gainera, nazioarteko lehian maiz ibiltzen diren beste hiru kirolari ditu urbizietako sekzioak: Joan Crespo, eta Telmo eta Klara Olazabal anai-arrebak. Emaitza horiek kontuan hartuta, harrigarria gerta daiteke kirolariek Irundik urrun entrenatu behar izaten dutela jakitea. Urbizietako kanala eraikitzeko proiektuak egon izan dira Irunen, garai oparoagoetan. Gaur egun, ordea, esku-hartze xumeagoekin konformatuko litzateke Santiagotarrak. Mikel Estonba ur-bizietako sekzioko ordezkariak eman ditu azalpenak: "Dunboako kanalean, entrenatzeko slalom gune bat instalatzeko aukerak azter ditzaten eskatzen dugu. Bestalde, San Migeleko tren geltoki zaharra birmoldatzea ere eskatzen dugu, bertan piraguak eta kanoak gorde ahal izateko, eta aldatu ahal izateko". Bitarteko eta azpiegitura eskasia konpontzeko eskumena duten erakundeei deia luzatu die Estonbak.

Atzerapena, kalitatearen mesedean

Manu Etxeberria elkarteko kideak idatzi du *Santiagotarrak-50 urte Bidasoan* liburua. 2016aren amaieran argitaratzea aurreikusi zuen, baina atzeratu egin da, azkenean. Nolanahi ere, liburuaren onerako izango dela uste du Etxeberriak, eta azken emaitza, "kalitatezkoa" dela. Pasadizoz eta klubaren historiako pasarteez jositako liburua da, 200ndik gora argazkiz lagundua. Lan hirukoitza egin behar izan du Etxeberriak, klubak hiru sekzio dituela kontuan hartuta. Laguntza izan du, alabaina, elkarrizketak erantzun dituzten protagonistena, eta zirriborroak birpasatu eta ekarpenak egin dituztenena. Elkartearen bulegoetan eros daiteke liburua, eta CBA liburutegian ere eskura dago.

"Alde batetik bestera gabiltz
Ibaian tira eta tira
Guk hantxe bertan bete ditugu
Hainbat amets eta desira
Betiko giroz Bidasoatik
Garai berri bat hasi da
Eta azken hauek, argi uzten dut
Jon Maiaren hitzak dira
Azken arnasa eman nahi nuke
Bidasoari begira"

Iraurgi Lopetegi klubeko kirolariaren bertsoak, aurkezpen ekitaldian

Irtenbidea ezin topatu

Lanbideren ordainketa okerrek kaltetutako irundarra da Aitor Perez

Alaba lotan dagoela azpimarratu du Aitor Perezek, etxeko atea irekitzerakoan. "Bere etorkizuna bermatzea da gure betebehar nagusia. Ahaleginak egin behar ditugu, ez dezan tentsioa nabaritu", aitortu du. Egongela txikiko sofan eseri da, kafe beroaren aurrean. Urduritasun puntu bat nabari zaio, lehenago elkarrizketa gehiago egin dituen arren: "Lotsa ematen dit egoera publiko egiteak. Beldurra ere bai. Baina milaka lagun dira kaltetuak, eta salatu beharra dago".

DSBE Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta suspenditu dio Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak. Gainera, zazpi espediente ireki dizkio, bidegabeko ordainketengatik. Horien arabera, 10.000 eurotik gorako zorra du Perezek Lanbiderekin. Hileroko 30 euroko kuota baten bidez ordaintzen ari da, oraingoz. "70 urte ditudanean amaituko dut", zehaztu du.

Duela sei urte, DSBE eskatu behar izan zuen Aitor Perezek. Bikoteak lan prekario bat duela azaldu du, lanaldi erdi baino gutxiagokoa, eta enpresaren beharren baitakoa: "Bikotearen nomina guztiak aurkezten nituen Lanbiden, eta bi hilero, diru-laguntzaren kopuruaren zuzenketa bidaltzen zidaten, bikotearen diru-sarrera aldakorren arabera. Beraz, pentsatzen genuen dena ondo zihoala". Halako batean, ordea, gutunak iristen hasi zitzaizkion Perezi, Lanbideri dirua zor ziola azaltzen zutenak. Guztira zazpi espediente ditu, diru kopuru ezberdinekin: "Gutunak oso generikoak dira, eta hitz teknikoz josita daude. Ez dira batere argiak. Lanbideko bulegora jo genuen, zalantzak argitzeko asmoz. Baina han ere, ez ziguten azalpenik eman".

Aitor Perezena ez da kasu isolatua. Gipuzkoan bakarrik, ia 25.000 lagun daude DSBE suspendituta eta Lanbiderekin zorretan, Lanbidek Kaltetutakoen Plataformaren datuen arabera (15.000 dira DSBE jasotzen dutenak). Administrazio akatsen ondorioz daude egoera horretan. Ondorengoa da erakundearen azalpena: "Okerreko ordainketak sortzen dira, DSBE jasotzen duten pertsonen edo familien egoeretan aldaketak ematen direnean, eta Lanbidek ez duenean momentuan haien berri izaten". DSBE jasotzen duen norbaiti behar baino gehiago ordaindu diola konturatzen denean, gutuna bidaltzen dio Lanbidek, kopuru horiek erreklamatuz. Alabaina, DSBE jasotzen duten familia gehienak, egoera larrian daude, eta ezin izaten dute bueltatu. "Bi hilero zuzenketak bidaltzen baldin badituzte, eta sekulako zorrak sortzen baldin badira, argi dago haien lana gaizki egiten dutela. Ez dakit akatsa edo utzikeria izango den", adierazi du Perezek.

Lanbidek Kaltetutakoen Plataformara, eta Irungo Kale Nagusian dagoen Erletxea gizarte laguntzei buruzko informazio bulegora jo du Aitor Perezek, laguntza bila: "Orientazio gisa oso baliagarriak izan dira. Baina errealitatea da, gure egoeran dagoen jendeak bakardade handia sentitzen duela". Alegazioak eta errekurtsoak egin dituzte, baina antzeko erantzunak jaso izan dituzte beti. "Aurreko gutunaren kopia bidaltzen dizute, edo azalpen aldrebes bat luzatzen dizute, justifikaziorik ematen ez duena", azaldu du Perezek. Horiek horrela, gelditzen den azken aukera, auzitegiena da. Zazpi espedienteetako biren inguruko epaiketak edukiko dituzte, oraingoz. "Lehenengoa atzeratu egin digute, Lanbidek ez zuelako dokumentazioa aurkeztu", zehaztu du Perezek.

Dena Gasteizen zentralizatua dagoela ere salatu du Aitor Perezek. Hori azaldu diote, behintzat, Irungo bulegoan. Epaiketak ere Gasteizen izaten dira, horrek dakarren gastu guztiarekin. Bulegoetan jaso duten tratua kritikatu du Perezek: "Mespretxuz tratatzen gaituzte. *Zuek* espresioa erabiltzen dute. Baina gu ez gara *zuek*. Pertsonak gara, izen-abizenak ditugu. Hortxe hasten da bazterketa soziala". Udaleko Gizarte Zerbitzuetara ere jo dute, Gizarte Emergentzietako Laguntza eskatzera. "Ez ziguten onartu, DSBEa suspendituta nuelako. Zer da, orduan, gizarte emergentzia bat?".

Eragin zuzena egunerokoan

Egoerak erabat baldintzatzen du Aitor Perezen, eta bere ingurukoen egunerokoa. "Gurasoak, anai-arrebak eta ingurukoak laguntzen ahalegintzen dira, baina horrek pobreziara eramaten ditu", argudiatu du Perezek: "Badaude guraso bakarreko familiak, errekurtsorik gabe utzi dituztenak. Adin txikikoen babeserako legea urratzen ari dira". Haien kasuan ere, alabaren hezkuntza aurrera ateratzea da lehentasuna. Ez da erraza, dena den, testuinguru aldrebesetik aparte mantentzea. "Badaude hainbat eta hainbat gauza, oso arruntak diruditenak, baina ezin ditugunak egin", aipatu du Perezek.

Laguntzarik gabe uzteaz gainera, Aitor Perezen edozein jarduera kontrolatzen du Lanbidek. Amateur musika talde batean jotzeagatik, esaterako, datu ekonomikoak ezkutatu izana leporatu diote. Sare sozialetako aktibitatea ere kontrolatzen diotela baieztatu du Perezek, kaltetutakoen plataformaren argitalpenak elkarbanatzen dituelako. Hala ere, salatzera animatu nahi luke: "Gero eta gehiago izan, presio handiagoa egingo dugu". Aurreiritziak apurtzeko ere balio dezakeela uste du, gainera, Aitor Perezek: "Tendentzia arrazista bat sortu da DSBEren inguruan. Gainera, ematen du denak garela iruzurgileak eta errealitatea da %0,3koa da iruzurra DSBEn. Datu ofizialak dira horiek, nahiz eta ezkutatu egiten diren". Auzi bidetik konponbidea lortzeko itxaropen handirik ez du Perezek. Horregatik, lana lortzeko ahaleginetan dabil.

Irungo La Salle HH



Hirubide DBH

BIZKOTXOA

OSAGAIAK:

- Arrautzak
- yogurt bat
- azukrea (bi yogurt poto)
- irina (hiru yogurt poto)
- legamia
- gurina edo olioa (yogurt poto bat)
-

PROZEDURA:
Lehenengo, ontzi batean arrautzak bota ,bigarrenik yogurta erantsi, gero y azukrea , laugarrenik irina erantsi, bostgarrenik, legamia sobre bat erantsi, eta azkenik gurina edo olioa. Dena erantsitakoan, irabiatu osagai guztiak irabiatu eta labean sartu 40 minutuz 180 gradutan.

EUSKARAZ, IRUNEN BARRENA

S.R.A. andereari jasoa (1959ko - VII-9).
(El Bidasoa, 1959-VII-17)

Txantxagorria txantxate

Txantxagorriya txantxate
billiarrua alkate,
xixare buztan bategatikan
Urkamendira na´mate.

Iturria: Nikolas Alzola Gerdiaga
Euskaraz, Irunen barrena.

ENERITZ FURYAK:

“Pixkanaka hartuko dut behar den heldutasuna”

Azken kontzertua eskaini zuen Kasernarat taldeak 2016ko urtarrilean, Irungo Hazia Kultur Elkartean, bost urteko ibilbidea osatu eta bi disko plazaratu ondoren. Etenaldi bat egin eta gero, bakarka bueltatzeko asmoaren berri eman zuen, orduan, Eneritz Dueso (Irun, 1993) abeslari eta gitarra jotzaileak. Eneritz Furyak izen artistikoarekin itzuli da 2017an, izen bereko lehen diskoa besapean. Autoekoizpena muturreraino eraman du Furyak-ek. Etxean grabatu ditu hamar kantuak, diseinu originala sortu du, eta bere kabuz ari da diskoak saltzen eta zabalkunde lanean. Oholtzan ere bakarrik ari da, bere kantaera bereziaren eta gitarra akustikoaren laguntzaz.

Nolatan erabaki zenuen bakarka hastea?
Ez zen nire erabakia ere izan. Oraindik taldean nengoela, beste musikari batek proposamen bat egin zidan, bakarlariez soilik osatutako jaialdi batean jotzeko. Baiezkoa eman nuen, eta hortik aurrera kontzertu gehiago etorri ziren. Denbora igarota, ohartu nintzen mozketa bat behar nuela musikarekiko. Sortu nituen azken kantuak ez zeuden Kasernarat taldera bideratuta, eta horregatik, atsedenaren ondoren bakarkako disko batekin bueltatzea erabaki nuen.

Badaude Kasernarat-en garaiko abestiak, eta ondorengoak ere bai.
Bai, diskoko ia abesti guztiak jo izan ditut zuzenean, geldialdia egin baino lehen. Bakarka jotzeko sortu ditudan abesti gehienak bildu ditut disko honetan. Modu bat da kontatzeko hau ez dela proiektu berri bat. Badator lehenagotik, baina orain markatuago dator.

Kasernarat-en ildoa jarraitu duzu, hala ere, soinuaren eta hitzen aldetik. Zein dira ezberdintasunak?
Handiena, ez dagoela bateriarik eta baxurik. Hori da disko honetan desagertu dena. Estilo aldetik antzekoa da. Agian badaude kantu lasaiago batzuk, baina egia da ez dudala grindcoretik musika klasikora aldatu. Gauza bera da, eboluzio pixka batekin.

Autoekoizpenaren alde egin duzu. Zergatik?
Arrazoi nagusia da ez diodala eperik jarri nahi izan. Ez nuen nahi behartuta egon norbaitekin ordutegi jakin batzuetan geratzera, eta bi egunetan hamar kantu grabatzera. Nik nire burua grabatzeak ekarri didana da estutu gabe aritu ahal izatea. Diskoa grabatzeko egun jakin batzuk dituzunean, beharbada ez dituzu egunik onenak edukitzen, edo ez zara emaitzarekin guztiz gustura geratzen. Beste modu batean lan egitea izan da nire helburua.

Ondorengo lanean, zabalkundean ere, zure kabuz ari zara, interneten buru-belarri.
Lan asko ematen dit, baina aldi berean, kontrol absolutua dut. Interneten eros daiteke diskoa, edo bestela, kontzertuak dira lortzeko modu bakarra. Nire esku har dezakedan lana zein den ikusi dut, eta balio dit aurrera begira erabakitzeko zer delegatu behar dudan eta zer ez. Esperimentu txiki bat izan da, orain arte hobby moduan egin dudan zerbait, serioago hartuta noraino heldu naitekeen ikusteko. Oraingoz pozik nago, eta ikasten ari naiz, aldi berean.

Sormen aldetik askatasun handiagoa eduki duzu?
Azken aldian sortu ditudan kantuak ez nituzke egingo Kasernarat-entzat pentsatzen ariko banintz. Alde horretatik, askatasun handiagoa daukat. Baina batzuetan egia da faltan botatzen dudala beste musikari batzuekin lan egitea. Pixkanaka hari bati tiraka hasi eta beste pertsona horiekin abestiari forma ematea.

Kasernarat-en zaleez gain, beste jende batengana ere ailegatu nahi zenuke?
Kantuak sortzerakoan ez dut inoiz pentsatu norentzat diren. Dena den, estilo aldaketa oso handia ez denez, Kasernarat-en zaleei gustatuko zaiela pentsatzen dut. Baina egia da, era berean, zirkuitu batzuetan ezingo dudala hain erraz sartu. Jai giroko guneetan, erritmo handiagoa edukitzeak laguntzen du.

Formatu soila duzu zuzenekoan, gitarrarekin bakarrik. Ez duzu bakardadea sentitu?
Lehen kontzertuan, nolabaiteko erdoila sentitu nuen. Baina ohitura faltak eragindako zerbait dela eta konponduko dela pentsatu nahi dut. Goizegi da zerbait esateko. Pixkanaka hartuko dut beharrezkoa den heldutasuna.

Mota askotako lekuetan jo izan duzu. Zein plaza nahiago duzu?
Musikari gisa, eta ikusle bezala ere bai, beti nahiago izan ditut areto txikiak. Jaialdi handietan ez dakizu jendea musika entzutera, instagrameko argazkia ateratzera edo lagunekin mozkortzera joaten den. Areto txikietara joaten den jendea kontzienteagoa da.

Uda garaia dator, kontzertuen garaia festa giroan aritzen direnentzat. Zuk non topatuko dituzu jotzeko tokiak?
Festa giroan aritzeko ere hots egiten didate. Ez larunbat gauean jotzeko, baina bai, beharbada, igande arratsalderako. Bestalde, azpimarratu gaztetxeek edo gune autogestionatuek aukera handiak eskaintzen dituztela musikari askorentzat. Gainera, leku askotan hasi dira kontzertuak kalean, tabernetako terrazetan etab. antolatzen.

Beti eman izan diezu garrantzi handia hitzei.
Lehen asko idazten nuen, orain ez dut astirik topatzen, eta nire zirrikitua musika da. Eskerrak horri. Ez zait gustatzen esaldi bakarreko kantuak egitea. Egia esan meritua behar da horrela kantu on bat egiteko, eta egon badaude. Baina nire lanean ez dago horrelakorik, eta egia da letrak matxakatzen ditudala. Dena den, kantuetan, gitarrak ematen dit bidea. Normalean, letra baino lehenago, helburua izaten da melodia bilatzea.

KANPALEKURAKO BEKAK EKINTZAILE BERRIENTZAT
Hainbat herrialdetako 30 gazte batera joango dira Hungariara.

Kokalekua: Zamárdi (Hungaria)

Parte-hartzaileak: 30 gazte (10 Poloniakoak, 10 Espainiakoak eta 10 Hungariakoak).

Iraupena: 2017ko ekainaren 18tik 24ra.

Norentzat: 19 eta 29 urte bitarteko gazteentzat
Eskaera epea: 2017ko apirilaren 7a.

Betekizunak: Oinarrizko komunikazio gaitasuna ingelesez.

Beka eskatzeko prozedura:
- Bidal ezazu e-posta bat project-eu@cenp.com helbidera eta adierazi era argian zure izen-abizenak eta harremanetarako datuak (telefonoa eta e-posta).

-Erantsi: zure CVa, argazki bat, eskutitz bat, parte hartzera bultzatzen zaituzten arrazoiak emanez.

- Apirilaren 19an hasiko dira eskatzaileekin elkarrizketak, honela:
  - Madrilgo eskatzaileak:apirilaren 19an, arratsaldean, CENPren egoitzan
  - Madrilgoak ez diren eskatzaileak: apirilaren 20an, bide telematikoaren bidez.

OIHANA PARK-ERA GOAZ !!! BA AL ZATOZ?
Irteera Oihana Parkera.

Noiz? Apirilak 21.

Nora? Urruña.

Adina: 12-22.

Topagunea: Gaztelekuan 10:30etan.

Itzulera: Gaztelekura bueltatuko gara berriz ere, 16:00ak inguruan.

Prezioa: 10,90 euro (autobusa + 2 orduko ekintza + asegurua).

Izen emateak:
- Gaztelekuan (Elizatxo, 18 - Irungo La Salle ondoan), emailez: gazteleku@irun.org edo 660 685 001 whatsappean

- IGazte (CBA Kultur Gunea - San Juan plaza, -1 solairua) emailez: igazte@irun.org edo 607 771 173 whatsappean.

Informazio gehiago: www.irun.org/igazte

irun gazte informazioa

- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

ASTE SANTUA 2017 GAZTELEKUAN

Apirilak 18: FUTBOL TXAPELKETA
- Ordua: 10:00 - 14:00.
- Lekua: Gain gainean parkeko futbol zelaia.
- Taldeak: gehienez 5 jokalari: 3 txiki (9-12 urte bitarte) eta 2 handi (3-16 urte bitarte) - (Banaka izena emateko aukera).
Izen-emateak: Gaztelekuan edo futbol zelaian egun berean.

Apirilak 20: KUADRINPIADAK
- Ordua: 17:00 - 20:00.
- Lekua: San Juan plaza.
- Taldeak: gehienez 5 pertsona taldeko (banaka izena emateko aukera).
- Adina: 12-17.
- Saria: Afari bat talde osoarentzako

Izen-emateak:
- Gazteleku (Elizatxo, 18 - Irungo La Salle ondoan), emailez: gaztelelu@irun.org edo 660 685 001 whatsappean.
- IGazte (CBA Kultur Gunea - San Juan plaza, -1 solairua) emailez: igazte@irun.org edo 607 771 173 whatsappean.

Apirilak 21: IRTEERA OIHANA PARK-era.
- Nora: Urruña.
- Adina: 12-22.
- Topagunea: Gaztelekuan 10:30etan.
- Itzulera: Gaztelekura bueltatuko gara berriz ere, 16:00ak inguruan.
- Prezioa: 10,90 euro (autobusa + 2 orduko ekintza + asegurua).

Izen-emateak:
- Gaztelekuan (Elizatxo, 18 - Irungo La Salle ondoan), emailez: gazteleku@irun.org edo 660 685 001 whatsappean.
- IGazte (CBA Kultur Gunea - San Juan plaza, -1 solairua) emailez: igazte@irun.org edo 607 771 173 whatsappean.

Apirilak 22: ESCAPE ROOM
- Lekua: Irun (Elcano kalea).
- Adina: 12 - 17
- Topagunea: Gaztelekuan 16:00etan.
- Itzulera: Gaztelekura bueltatuko gara, berriz ere, 18:30ak inguruan.
- Prezioa: 5 euro
- Taldeak: gehienez 5 pertsona taldeko (banaka izena emateko aukera).
- Izen emateak: Gazteleku (Elizatxo, 18 - Irungo La Salle ondoan), emailez: gaztelelu@irun.org edo 660 685 001 whatsappean

Apirilak 19, 20 eta 21:
BURUHANDIAK SORTU TAILERRA
- Lekua: Gazteleku
- Ordua: 18:00

DOAN!

Apirilaren 22ra arte

Zer? “Emakumeen eskubideak” erakusketa. Zazpi paneleko erakusketa honetan, mundu osoko emakume eta neskatxek euren giza eskubideei begira jasaten dituzten desberdinkeria-, diskriminazio- eta urraketa-egoerak ikus daitezke, hainbat herrialdetako adibideen eta istorio pertsonalen bidez.

Non? Kabigorrin.

Ordutegia? Ostegunetik larunbatera 19:00etatik aurrera / igandetan 17:00etatik aurrera

Prezioa: Doan.

Apirilak 18

Zer? Futbol txapelketa 9 eta 16 urte artekoentzat.

Non? Gain-Gainean parkeko futbol zelaia.

Izena emateko?
Martindozenea Gaztelekuan.
Telefonoa: 943636826
Web: www.irun.org//enlaces/00035195.pdf

Prezioa? Doan.

Ekainak 4ra arte

Zer? Rosa Valverde donostiar margolariaren erakusketa ekainaren 4ra arte ikusgai. Azpimarratu behar da bertan jarriko diren pieza gehienak erakutsi gabeak direla, Rosa zenaren etxean gordetakoak. Horien bidez, orain bi urte hildako artistaren mundu intimoa islatu nahi da. 2017an barrena beste bi emakume artisten erakusketak jarriko dituzte aipatutako aretoan.

Non? Menchu Gal erakusketa aretoan.

Ordutegia? Ostirala eta larunbata: 18:00-21:00; Igande eta jaiegunetan: 11:30-13:30.

Prezioa: Doan.

Apirilak 24

Zer? Liburuaren Nazioarteko egunean jendeaurreko irakurketa euskaraz: “Nola heldu naiz ni honaino”.

Non? CBA liburutegian.

Prezioa? Doan.

Apirilak 28

Zer? Apirileko Feria.

Programa:
20:00: Inaugurazioa
20:00: Jolas parkea haurrentzat
20:15: Sevillanak EMBRUJO ANDALUZen eskutik.
21:00: Musika emanaldia ANGELICA LEYVAren eskutik.
22:00: Sevillanak: SON DE ASES taldearekin.

Non? Zabaltza plazan.

Prezioa? Doan

“Esan irudiekin I” erakusketa

Noiz? Apirilaren 21era arte.

Ordutegia? Asteartetik larunbatera: 17:00-21:00.

Non? Martindozenea Gaztelekuan.

Prezioa? Doan.

Egilea: Joseba Larratxe "Josevisky" (komiki eta ilustrazio marrazkilari ospetsua).

Gerra Zibilari buruzko erakusketa da. Egileak irudietan islatuko ditu historia horrek berarengan sortu dituen sentimenduak eta sentsazioak. Larratxeren lanaren abiapuntua oiartzuar baten biografia da.

Bertan kontatu zuen bere esperientzia, gerran izandako bizipena, nola geratu zen banatuta bere familia (bera alde batean, eta anaia eta arrebak, bestean).



EZ KONTZAK 2017-2018

-ARGAZKI PAREGABEAK ETA DESBERDINAK
-EZKONTZA ZERBITZUETAN AUKERA ZABALA
-MOMENTUAN INPRIMATUKO ARGAZKIAK
-KONTSULTATU KONPROMISORIK GABE

Gover ESTUDIO

-Argazki sozialak
-Publizitatea
-Ekitaldiak
-Ezkontzetan espezialistak

www.fotogover.com
www.fotogoverbodas.com
info@fotogover.com

Fernando Vergara
fotógrafo

Avda. Letxunborro 100-2°drcha 20305-Irun
943 840 113 - 647 930 484